

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa hirugarren foru-komunitatea da etxeetako kultur kontsumoaren gastuan

Gainera, Nafarroa biztanleko kultur gastu handieneko foru-komunitatea izan zen 2012an, Ministerioko Kultur Estatistikako Urtekariaren arabera

Lunes, 10 de noviembre de 2014

Nafarroa hirugarren foru-komunitatea da etxeetako kultur kontsumoaren gastuan, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako 2014ko Kultura Estatistikako Urtekariaren arabera. Urtekari hori estatistikako 20 iturritan oinarrituz egiten da. 2013an, kultur gastuaren Espainiako batez bestekoa 673,3 eurokoa izan zen, eta Nafarroan, berriz, 759,5 eurokoa; zifra hori Madrilek (883,9 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoak (777,6 euro) gainditzen dute soilik.



Nafarroa biztanleko gehien gastatzen duen Komunitatea izan zen 2012an, 56,8 eurorekin.

Estatistikak egiaztatzen du ere kultur gastu hori 2012 eta 2013 artean jaitsi zela autonomia erkidego guztietan. Espainia guztian, 738,8tik aipatutako 673,3ra pasa zen eta aipatutako hiru komunitate horietan, adibidez, aurreko urtean 966, 858 eta 838 euro xahutu zituzten Madril, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroan, hurrenez hurren.

Txosten horrek dioenez, Nafarroa 2012an Kulturaren gastu publiko gehien egindako Autonomia Erkidegoa izan zen biztanleko (txostenak ez ditu 2013ko aurrekontuak jasotzen), 36,3 milioi euroko inbertsioarekin, hau da, 56,8 euro biztanleko izango zena; ondoren EAE etorriko zen (49,4ko inbertsioa) eta Katalunia (37,7 milioi euro). Nafarroan 2012an gehien inbertitu zen kultur sektoreak honako hauek izan ziren: kultur ondasun eta zerbitzuak (15,5 milioi) eta arte plastikoak, eszenikoak eta musikalak (10,3 milioi).

Nafarroako familien kultur interes handiena kultur turismoari buruzko datuetan ere adierazten da. Espainian murriztu egin da kultur interesagatik bidaiatzen duten pertsona-kopurua: 2012an 12 milioi pertsona ziren eta 2013an, 10 milioi inguru; Nafarroako datuak, ordea, bestelakoak dira: 205.800 nafarrek bidaiatu zuten beste leku batzuetara kultur interesagatik eta 247.800ek gauza bera egin zuten 2013an. Horrekin batera, Nafarroa kultur intereseko leku bihurtu da gainera eta, hala, kultur bidaiariak 2012 eta 2013 artean jaitsi badira ere Espainia guztian, arrazoi horrengatik hona helden direnak 130.600etik 163.800era pasa dira urte horretan.

Nafarrek kulturarekiko duten interes handiago hori ere beste datu bitxi batean ikusten da, eta "Kultur arloko irakaspenak" ataletik ateratakoa da: Nafarroan Batxilergoko Arteen modalitatean 527 ikasle matrikulatu ziren 2012-2013 ikasturtean, hau da, batxilergoko ikasle guztien % 6,2, Espainiako autonomia erkidego guztietako laugarren ehuneko altuena.

Espainiako kulturaren egoera nahiz bilakaeraren ezagutza lortu nahi duen urtekari horretan egiaztatzen da, hala ere, Nafarroak zenbait kultur enpresa galdu dituela (Nafarroan 1.237 erregistratu ziren 2013an, aurreko urtean baino zerbait gutxiago; 2012an, 1.290 zeuden), eta Nafarroako kultur enplegua enplegu guztiaren % 2,6 dela (6.700 pertsona), Espainiako batez bestekoaren antzeko zifra. Espainian, kulturaren sektorean lan egiten dutenak 485.300 pertsona dira, enplegu guztiaren % 2,8.

2014ko Kultur Estatistikako Urtekariak ere azpimarratzen du, Nafarroa biztanleko espazio eszenikoen Espainiako batez bestekoan sartzen dela.

Argitaletxeen mundua, arte eszenikoak, musika eta zinema

Argitaletxeen ekoizpenari dagokionez, Urtekariak Espainian argitaratutako titulu-kopuruak behera egin duela jasotzen du; 2012an 104.724 izan ziren eta 89.150 arte jaitzi ziren 2013an. Nafarroan, 1.040 titulu 2012an, eta 1.046, 2013an, hots, igoera txiki bat, eta igoera hori euskarri digitalean argitaratutako tituluak igo zirelako gertatu zen (108tik 434ra igo zen). Paperezko liburuak ere jaitzi egin ziren, 932tik 612 ra.

Emanaldiei dagokienez, Espainian 50.833tik 48.610era jaitzi zen urte horietan, eta Nafarroan 909tik 865ra. Emanaldi bakoitzeko ikusle nafarren kopurua soilik 160tik 157ra jaitzi arren, emanaldi gutxiago izateak ikusle-kopurua, guztira, 145.000tik 135.000 jaistera eragin zuen.

Musikan, 414 kontzertutik 390era jaitzi zen. Nolanahi ere, ikusleen kopuruak ez zuen behera egin (165.000tik 158.000ra); beraz, batez besteko ikusle-kopurua hobetzen zen: 2012an, 398 pertsona zeuden kontzertuko eta 405, 2013an.

Herri-musikako kontzertuak ere apur bat jaitzi ziren: 1.142tik 1.029ra.

Azkenik, zinema-aretoetan aurreko ekitaldiko datuak errepikatu ziren ia. 2012an 76 areto zeuden zabalik eta 2013an, 72, hau da, Nafarroak 100.000 biztanle bakoitzeko (11,3) areto gehien dituen autonomia erkidegoetako bat izaten jarraitzen du; Errioxa (16,6) eta Madril (10,5) bakarrik ditu gainera.